

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuan E mailako aldi baterako enpleguko zerrendetarako aurkezteko epea irekita dago otsailaren 15era arte

Izangaiek lan egin nahiko luketen mugape geografikoak eta lanaldi partzialeko kontratuak onartzeko prestasuna aukera ditzaket

Osteguna, 2017.eko otsailak 2

Nafarroako Gobernuak [deialdia](#) egin du, ariketa teoriko bitartez, [E mailako aldi baterako kontrataziorako zerrendak](#) eratzeko; horren helburua da Foru Administrazioa langileen beharrei erantzutea, Osasun Departamentuan izan ezik.

Hautapen-prozesu horretan parte hartu nahi dutenek otsailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute [parte hartzeko eskabidea](#) Nafarroako Gobernuaren [edozein erregistroan](#), www.navarra.es atarian edo 39/2015 Legean aurreikusitako gainerako lekuetan, postetxeetan esaterako.

Besteak beste, honako eskakizunak bete behar dituzte izangaiek: eskola-ziurtagiria izatea, Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua, eskola-graduatu titulua, oinarriko lanbide heziketakoa, lehen mailako lanbide heziketakoa edo baliokideren bat izatea.

Izena ematerakoan, lan egin nahiko luketen Nafarroako mugape geografikoak eta lanaldi partzialeko kontratuak onartzeko duten prestasuna ere [aukeratu](#) beharko dute izangaiek.

Mugape bat baino gehiago aukera daiteke, ez baitira baztertzailak.

Euskara eskatzen duten kontratazioetan sartu nahi dutenek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailari dagokion tituluaren fotokopia aurkeztu beharko du, edo izangaiek hizkuntza-maila egokia duela egiaztatuko duen froga bat egin beharko du.

Onartutako enplegu zerrenda, froga teorikoa eta gaiak

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak deialdian onartu eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratuko ditu Nafarroako Gobernuaren iragarki-taulan (Iruñeko Carlos III.aren Hiribidea) eta www.navarra.es webgunean.

Zerrenda horren aurrean erreklamazioak edo akatsak zuzentzeko eskabideak aurkezteko aukera egongo da hamar egun balioduneko epean. Ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Hautapen-prozesuan froga teoriko bat egingo da; hainbat erantzun-aukera eta erantzun zuzen bakarra duten 80 galderako galdetegari erantzun beharko diote izangaiek idatziz.

80 punturekin kalifikatuko da gehienez azterketa, eta baztertuta geratuko dira gehienezko puntuazioaren gutxienez % 30 lortzen ez duten izangaiak.

Elektrizitateari, igeltserotzari, margolaritzari, egurrezko eta metalezko arotz-lanei, lorezaintzari, iturgintzari, berogailuei, saneamenduari eta oinarrizko mekanikari buruzkoak izango dira galderak.

Baita jantoki-zerbitzu batean kontuan izan beharreko alderdiei eta higieneko jardunbide egokiei, garbitasuneko kontzeptu orokorrei, garbiketa-sistemei, gelen garbiketari eta arroparen garbiketa eta zainketei